

GARTZIATEGI, sagardotegia



Helbidea

Paseo Martutene 139, Donostia
Telefonoa: 943 46 96 74

Martuteneko sagardotegi tradizional hau urte osoan zehar dago zabalik. Normalean, bere jangelak 115 bat pertsona hartzen ditu, baina COVID-19-aren pandemia dela eta, 80 pertsona ingurura murriztu behar izan dute edukiera.

Establezimenduko bezeroen profila askotarikoa da, ez bakarrik jatorriari dagokionez, baizik eta baita adinari ere. Eskaintza gastronomikoa aldatu egiten da denboraldiaren arabera. Txotx garaian sagardotegiko menu tipikoa eskaintzen dute (bakailao-tortilla, bakailao frijitua, txuleta eta gazta irasagarrarekin), eta, denboraldia amaitutakoan, saiheskia edo mendrezka bezalako platerak dasta daitezke, besteak beste.

Gartziategiko berezitasunen artean, parrillan egindako elaborazioak eta sagardoa daude. Izan ere, % 100 euskal sagardo jatorri deiturako upeltegia dira.